BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

3350

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 9koa, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren osaera aldatzeko dena.

2009ko urriaren 30eko Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluaziorako zuzendariaren Ebazpenaren bidez (EHAAren 242. zk., 2009ko abenduaren 17koa) egiaztagiria ematen zaio Euskadiko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari.

Farmazia Zuzendaritzatik kide berria izendatu dutela adierazi dute. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoak egiaztatzen dituen Osasun sailburuaren 1994ko irailaren 28ko Aginduak 3. eta 7. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuak 13. artikuluan emandako funtzioak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– José María Gonzalez de Castro Eusko Jaurlaritzaren Abokatua Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoko presidenteordea izendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina. Ebazpena, bestalde, Osasun eta Kontsumo Ministerioari jakinaraziko zaio.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordeari edota Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 9a.

Ezagutzaren gestioko eta ebaluazioko zuzendaria,
JOSÉ ASUA BATARRITA.